



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 22a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Kanarietatik datozen migratzaileak hartzeko plaza gehigarriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Ertzillako Iturburuaren Partzuergoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, enplegu-politika aktiboen dokumentua onesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako osasun etxeetan pediatrik falta izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak osatutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, terrorismo abertzale sozialistarekin zerikusia duen memoria-guneak onesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Urnizako Jaurreiriari (Erroibar) buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, udalen eta Nasuvinsaren arteko lankidetzeta-sistemaren bidez garatuko diren hirigintza-jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, enplegu inklusiboko programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Arga eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordea eratzeari buruz (10-21-PES-00067). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako Arartekoak EGA Bizirik elkarteak aurkeztutako kexa dela-eta eginiko gomendioa onartu eta Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordea eratzeko?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Arartekoari 2021eko otsailaren 11n bidalitako idazkian azaltzen den bezala, erantzun hau eman zaio goi erakunde horri:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarentzako gomendioa jaso dugu, alegia, lehenbailehen eratu dadila Nafarroan dauden kontserbazio bereziko eremuetako gidaritza batzorde guztiak eta, bereziki, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremukoa. Bada, onartu egiten da gomendio hori eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren konpromisoa da gidaritza batzorde horiek sustatzea; zehazki, aipatu KBEari dagokion batzordea sustatzea aurtengo lehen hilabeteetan.

2.- Departamentuaren ustez, noizko egonen da eratu batzorde hori? Eta batzordeak eratu gabe dituzten gainerako kontserbazio bereziko eremuetakoak? Zer egutegirekin ari da lanean departamentua batzordeak osatzeko?

Kontuan izanik gidaritza batzordeak eratzeko lanak eta unitate arduradunen gainerako eginkizun eta ardurak bateratu beharra dagoela, Departamentua 2021erako eta 2022rako egutegi-aurreikuspena prestatzen ari da, lan horietarako dauden giza baliabideekin bateragarri dena.

Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordeari dagokionez, uste dugu datorren apirilko bigarren hamabostaldian egin ahalko dela hura eratzeko bilkura.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, Kanarrietatik datozen migratzaileak hartzeko plaza gehigarri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kanarrietatik datozen migratzaileak hartzeko plaza gehigarri buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00069), Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariari idatziz erantzun ditzan:

“1.- Azkenean, lortu al du Nafarroako Gobernuak Kanarrietatik etorritako migratzaileak hartzeko beste plazarik aurkitzea, gizarte entitateek –Gurutze Gorriak eta CEAR-Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak— dauzkaten programa arruntetako plazez gainera? Zenbat plaza

dira? Eskaini al zaizkio Migrazioen Estatu Idazkaritzari?

2.- Zer arrazoi eman ditu Migrazioen Estatu Idazkaritzak Foru Komunitateak dituen plaza guztiak ez aprobetxatzeko Kanariek jasaten duten migrazio-presioa arintzeko? Jarrera hori egiaztatzen duten dokumentuak nahi ditugu, halakorik badago”.

Hona hemen erantzuna:

Nafarroako Gobernuak guztira beste 20 plaza lortu ditu, aipatuz gainera, eta Migrazioen Estatu Idazkaritzaren esku jarri dira.

Estatu idazkaritza horren arrazoiei eta eskatu dituzun dokumentuei dagokienez, gogorarazten dizut ahalmena duzula Estatuko Administrazio Orokorrari egokitzat jotzen duzun informazioa eskatzeko haren ekintzei buruz. Halaxe agertzen da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Ertzillako Iturburuaren Partzuergoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ertzillako Iturburuaren Partzuergoari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-21/PES-00070 galdera egin du, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak idatziz erantzun dezan. Bertan honako galdera hauek egiten ditu:

1. Zertan dago, gaur egun, Ertzilla iturburutik araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala?

2. 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen 18/2016 Foru Legearen arabera, Ertzillako Partzuergoak jasoko luke Ertzilla Iturbururitik araztegia bitarteko hodia egiteko dirulaguntza. Ertzillako Partzuergoa deseginen balitz, Nafarroako Gobernuaren erantzunak dioenaren arabera, nork jasoko luke dirulaguntza hori?

3. Nolako da proiektuaren finantzaketa? Toki inbertsioen planeko dirulaguntzez gain, aurreikusitako beste entitate batzuen aldetik? Hala baldin bada, zein dira horiek?

Hauxe da kontseilariaren erantzuna: 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planeko 10022-0-19 espedientea, "Ertzillako iturburua-araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala (1.650 m)", Ertzillako Partzuergoak sustatua, aurrekontuan dagoen diruaren kargura finantzatzeko ahal diren inbertsioen zerrendan ageri da Toki Administrazio-ko zuzendari nagusiaren 195/2017 Ebazpenean. Oraindik finkatu gabe dago gehieneko diru ekarpena (gastu-konpromisoa).

Ertzillako Partzuergoa deseginen balitz, inbertsioaren titulartasuna Partzuergoko kideek erabakitzen duten toki entitatera aldatu ahalko litzateke.

Proiektuaren finantzaketari dagokionez, informazio hau eman daiteke: Toki Inbertsioen Planean 104.000 euroko finantzaketa aurreikusten da, eta zenbateko hori handitu egin daiteke 18/2016 Foru Legearen 4.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, finantzatzeko ahal den inbertsioaren arabera, betiere.

Azkenik, Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez dauka jasota inbertsioak beste dirulaguntzarik jasoko duenik.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an.

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak

10-21/PES-00072 galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak idatziz erantzun dezan. Bertan zenbait argibide eskatzen ditu Nafarroako Ubidearen 2. fasea garatzeari buruz. Hona Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa: Nafarroako Gobernua lanean ari da Nafarroako Ubideko Ereku Ureztagarriaren 2. faseko obren exekuziorako eskumenen titulartasuna berresleitze aldera.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an.

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, enplegu-politika aktiboen dokumentua onesteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu-politika aktiboen dokumentua onesteari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak

galdera egin du, jakin nahi baitu zer egutegi dagoen Enplegu Planaren parte izanen den enplegu-politika aktiboen gaineko akordioa onesteko (10-21/PES-00073). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak ematen dion informazioa:

2020ko urtarrilean hasi zen taxutzen enplegu-politika aktiboen gaineko akordioa, Nafarroako enplegu plan integral baten parte izanen dena. Martxoan lan horiek eten egin ziren koronabirusaren ondorioz. Azaroan erabaki zen lanei berriz ekitea, Nafarroako enpleguaren egoeraren diagnostikoa eguneratuz eta dokumentua prestatzeko egutegi berria ezarriz. Abendu amaieran berriz ekin zitzaaien lanei.

Hona proposatutako egutegia:

EGUNA	LANA
Urtarrilaren 20a	- Eskema-dokumentua eta 1. helburua lantzea.
Tarteko lan-aldia	- 2. helbururako azken proposamena aztertzea eta azterketaren emaitza Laguntza Teknikoari helaraztea: akordioa, ekarpenak edo desadostasunak.
Otsailaren 3a	- 1. helburua lantzea. Azterketa, hausnarketa, akordioa eta/edo desadostasunen identifikazioa eta negoziazioa.
Tarteko lan-aldia	- 2. helbururako proposamena aztertzea eta azterketaren emaitza Laguntza Teknikoari helaraztea. Alde biko bilerak finkatzea hori egokitzen duten eragileekin. - 3., 4. eta 5. helburuen azterketan aurrera egitea ahal den heinean.
Otsailaren 17a	- 2. helburua lantzea. Azterketa, hausnarketa, akordioa eta/edo desadostasunen identifikazioa eta negoziazioa.
Tarteko lan-aldia	- 3., 4. eta 5. helburuetarako proposamena aztertzea eta azterketaren emaitza Laguntza Teknikoari helaraztea. Alde biko bilerak finkatzea hori egokitzen duten eragileekin.
Martxoaren 3a	- 3. helburua lantzea. Azterketa, hausnarketa, akordioa eta/edo desadostasunen identifikazioa eta negoziazioa.
Tarteko lan-aldia	- Lana word dokumentu batean jasotzea, Enplegu Politika Aktiboen Planaren zirriborroa berrikusten hasteko. - Helburuen taulak lantzea adierazleak osatzeko, egutegiak egitea.
Martxoaren 17a	- 4. helburua lantzea. Azterketa, hausnarketa, akordioa eta/edo desadostasunen identifikazioa eta negoziazioa.
Tarteko lan-aldia	- 5. helbururako proposamena aztertzea eta azterketaren emaitza Laguntza Teknikoari helaraztea. Alde biko bilerak finkatzea hori egokitzen duten eragileekin. - 5. helburuaren azterketan aurrera egitea ahal den heinean.
Martxoaren 31	- 5. helburua lantzea. Azterketa, hausnarketa, akordioa eta/edo desadostasunen identifikazioa eta negoziazioa.
Tarteko lan-aldia	- Lana word dokumentu batean jasotzea, Enplegu Politika Aktiboen Planaren zirriborroa berrikusten hasteko. - Helburuen taulak lantzea adierazleak osatzeko, egutegiak egitea.
Apirilaren 7a	- Word dokumentuaren zirriborroa eta neurrien taulak lantzea akordio batera iritsi arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Nafarroako osasun etxeetan pediatrik falta izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako osasun etxeetan pediatrik falta izateari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Isabel Ansa Ascunce andreak 10-21-PES-00074 galdera aurkeztu du, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“– Nafarroan lan egiten duten pediatrik kopurua, guztira.

– *Pediatrik ez duten osasun etxeen kopurua eta zehaztapena.*

– *Langintza hori familia-medikuntzako profesionalek betetzen duten osasun etxeen kopurua eta zehaztasunak”.*

Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak honako informazio hau helarazten dizu:

Nafarroako Iparraldeko eta Nafarroako Ekialdeko Osasun Barrutiak

– Pediatrik kopurua, guztira:

84 titular, jabetzan duten plazan nahiz bitarteko langile gisa ari direnak hiru barrutietan (Ospitalez Kanpoko Larrialdietako Zerbitzuko bi kontuan hartuta).

Beste lau, jabetzan nahiz bitarteko gisa plaza badutenak baina hartan ari ez direnak, eszedentziagatik, baja luzeagatik... (Gares, Zizur, Irurtzun, Doneztebe). Familia-medikuek betetzen dituzte plaza horiek.

Guztira, 89

Pediatria plazen kopurua, guztira, osasun etxeetan: 107

Pediatria plazen kopurua, guztira, Ospitalez Kanpoko Larrialdietako Zerbitzuan: 7

Kudeaketari laguntzeko zerbitzua: 1

Plazen kopurua, guztira, Oinarrizko Osasun Laguntzan: 115

– **Pediatrik ez duten osasun etxeak:**

– Ez dute pediatrik eta ez dago plaza betetzen duen familia-medikurik: Leitza, Ultzama, Zarrakaztelu, Azkoien (2)

– Ez dute pediatrik eta familia-mediku batek betetzen du plaza; pertsona bakarreko plaza da:

Agoitz (0,5, Auritzekin partekatutako plaza)

Auritz (0,5)

Artaxoa

Etxarri Aranatz

Elizondo (1,5 plaza, horretatik 0,5 Ultzamarekin partekatua)

Doneztebe (baja luzea)

Gares (eszedentzia)

Irurtzun (eszedentzia)

Cascante (0,5 plaza, 2 plazatik)

Villatuerta (0,5, Allorekin partekatutako plaza)

Allo (0,5)

Lodosa (1,5)

– **Pediatrik badituzten baina pediatria plaze-takoren batean familia-medikua duten osasun etxeak:**

Burlata (3 plazatik batean familia-medikua)

II. Zabalgunea (4 plazatik batean)

Arrosadia (2 plazatik batean)

Zizur (3,5 plazatik 0,5ean)

Mendillorri (2 plazatik batean)

Tutera Ekialdea (2 plazatik batean)

Tutera Mendebaldea (3 plazatik bitan)

Corella (2 plazatik batean)

Cintruénigo (1,5 plazatik 0,5ean)

Buñuel (2 plazatik 1ean)

San Adrián (2 plazatik 1ean)

Lizarrako Osasun Barrutia

Lizarrako OOLTa

• Pediatria bat (63749) lanaldi osoarekin

• Pediatria bat (535625) lanaldi osoarekin, lanaldiaren erdia Aiegin egiten du eta beste erdia Lizarran

- Pediatra bat (62676) lanaldi osoarekin
- Pediatra bat (535820) lanaldi erdiarekin
- Pediatra bat (68602) lanaldi osoarekin

San Adriango OOLTa

- Pediatra bat (62691) lanaldi osoarekin
- OOLTKo mediku bat (535677) pediatrian aritzen dena, lanaldiaren erdia Azagran eta beste erdia Mendabian
- OOLTKo mediku bat (69280) pediatrian aritzen dena lanaldiaren erdian Andosillan
- Pediatriako plaza huts bat (66627), bete gabe

Lodosako OOLTa

- Pediatriako 2 plaza huts, bete gabe (71506, 62659)
- OOLTKo mediku bat (69266) pediatrian aritzen dena lanaldi osoan
- Familia-mediku bat (535677) pediatrian aritzen dena lanaldiaren erdian Mendabian

Vianako OOLTa

- Plantillako pediatra bat (67957) lanaldi osoarekin, lanaldiaren % 80 Vianan egiten du eta gainetarakoa Los Arcosen

Los Arcosko OOLTa

- Pediatra bat (67957) lanaldiaren % 20arekin

Villatuertako OOLTa

- Pediatriako plaza huts bat (68207), bete gabe
- Familia-mediku bat lanaldi osoarekin (535508), pediatrian aritzen da lanaldiaren erdian Villatuertan, beste erdian Alloko OOLTan

Alloko OOLTa

- Familia-mediku bat (535508) pediatrian aritzen dena lanaldiaren erdian

Antzingo OOLTa

- Lizarrako OOLTari atxikitako pediatra bat (68602), pediatrian aritzen dena Antzinen, Villatuerta Iparraldean eta Lizarran

Tuterako Osasun Barrutia

2021eko otsailaren 1ean, pediatriako fakultatibo espezialista, OOLTKo pediatra eta ospitalez kanpoko larrialdietako pediatra izateko zenbait lanpostu huts esleitu ziren, merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzeaz, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen

abenduaren 21eko 1561E/2020 Ebazpenarekin bat.

Gaur egun, lekualdatze-lehiaketa hori amaitu ondoren, Tuterako aldeko pediatriako osasun laguntzaren estaldura honela egiten da:

Buñuelgo OOLTa: pediatriako bi plaza ditu

- 64396 zenbakiko plazak Buñuelgo eta Ribaforadako CIASen kupoak esleituta dauzka, eta 2021eko otsailaren 1etik plaza horretan ari da pediatriako prestakuntza duen familia-mediku bat.

- 68623 zenbakiko plazak Fustiñana, Cabanillas eta Cortesko kupoei dagozkien CIASak esleituta dauzka. Pediatriako mediku espezialista batek betetzen du plaza hori.

Cascanteko OOLTa: pediatriako bi plaza ditu, horietako bat erdi bana Cintruenigoko OOLTarekin:

- 65408 zenbakiko plazak Cascanteko kupoaren CIASak esleituta dauzka. Pediatriako espezialista batek betetzen du, baina amatasuneko eszedentzian dago eta pediatriako prestakuntza duen familia-mediku bat ari da haren ordez.

- 69919 zenbakiko plaza, 2016ko urriaren 17tik, pediatriako prestakuntza duen familia-mediku batek betetzen du, eta Murchante, Cintruénigo eta Fiteroko kupoen CIASak dauzka esleituta.

Cintruenigoko OOLTa: pediatriako bi plaza ditu; arestian esan den bezala, horietako bat erdi bana partekatzen du Cintruenigoko OOLTarekin:

- 64179 zenbakiko plazak Cintruenigoko kupoaren CIASak esleituta dauzka. Pediatriako mediku espezialista batek betetzen du plaza hori.

- 69919 zenbakiko plaza Cascanteko OOLTarekin partekatua da, eta, esan bezala, pediatriako prestakuntza duen familia-mediku batek betetzen du.

Corellako OOLTa: pediatriako bi plaza ditu:

- 64088 zenbakiko plazak Corellako kupoaren CIASak esleituta dauzka. Pediatriako mediku espezialista batek betetzen du plaza hori.

- 68624 zenbakiko plazak Castejongo kupoari dagozkion CIASak esleituta dauzka, eta 2021eko otsailaren 1etik plaza horretan ari da pediatriako prestakuntza duen familia-mediku bat.

Valtierra-Cadreitako OOLTa: pediatriako bi plaza ditu:

- 69920 zenbakiko plazak Valtierra kupoaren CIASak esleituta dauzka. Pediatriako mediku espezialista batek betetzen du plaza hori.

- 66364 zenbakiko plazak Cadreitako kupoaren CIASak esleituta dauzka. Pediatriako espezialista batek betetzen du, baina amatasuneko eszedentzian dago eta pediatriako prestakuntza duen familia-mediku bat ari da haren orde.

Tutera Ekialdeko OOLTa: Pediatriako hiru plaza ditu:

- 68300 zenbakiko plaza pediatriako prestakuntza duen familia-mediku batek betetzen du.

- 64578 zenbakiko plaza, 2021eko otsailaren 1etik, pediatriako prestakuntza duten familia-medikuek betetzen dute.

- 64331 zenbakiko plaza (arratsaldeetako kupo) pediatriako prestakuntza duten familia-medikuek betetzen dute arratsaldeko lanaldiarekin.

Tutera Mendebaldeko OOLTa: pediatriako bi plaza ditu:

- 65032 zenbakiko plaza pediatriako mediku espezialista batek betetzen du.

- 64576 zenbakiko plaza pediatriako prestakuntza duen familia-mediku batek betetzen du.

Erantsi behar da Tuterako Osasun Barrutiko OOLTetan profesionalen kontratazioaren bidez bete ezin diren plazak borondatez betetzen direla, oinarrizko osasun laguntzako taldeetako profesionalen eta Tuterako “Reina Sofía” Ospitaleko Pediatria Zerbitzuari atxikitako pediatren ahaleginari eta lankidetzari esker, haurrentzako osasun laguntza bermatzea helburu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Nafarroako Gobernuak osatutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedientei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak osatutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedientei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak galdera egin du COVID-19aren ondoriozko ABEE batek ukitutako langileentzako aparteko laguntza-lerroari buruz (10-21/PES-00075). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Hona hemen COVID-19aren ondorioz izapide-tu diren eta Nafarroako Gobernuak osatu dituen aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen xehetasunak, barnean direla laguntza horien onuradunen osagarriaren zenbatekoa, sektore ekonomikoak eta errenta-mailak:

Eskaeraren egoera (2021/02/23)	Espedienteak
Emanda	645
Zuzendu behar da	49
Ukatuta	553
Eskaera bikoiztuta	79
Guztira	1.326

Emandako zenbatekoa, guztira: 144.236,61 euro.

Laguntzaren batez besteko zenbatekoa onuradun bakoitzeko: 223,62 euro.

Taula honetan zehazten dira onuradunen errenta-mailak:

Errenta tartekak (euro gordinak urtean)	Onuradunen kop.	Onuradunen kop. (%)
>30.000	40	% 6,22
20.000-30.000	29	% 4,51
10.000-20.000	396	% 61,59
5.000-10.000	137	% 21,31
<5.000	41	% 6,38
GUZTIRA	643	

Ez daukagu sektore ekonomikoaren araberako informaziorik, ez delako berariaz bildu datu hori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 5ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, terrorismo abertzale sozialistarekin zerikusia duen memoria-guneak onesteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, terrorismo abertzale sozialistarekin zerikusia duen memoria-guneak onesteari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-20/PES-00076 galdera egin du, idatziz erantzundakion. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legeak, 2018ko abenduaren 31ko NAO n argitaratuak (250. zenbakia), Nafarroako memoria historikoaren toki bat zer den zehazten du 2. artikuluan:

“1. Memoria historikoaren toki gune fisiko bat da, Nafarroan dagoena eta halakotzat deklaraturik eta inskribaturik, eta Foru Komunitatearen interesekoa, memoriaren ondare historikoa den aldetik, bertan garrantzi bereziko gertaerak izan zirelako, 1936ko kolpe militarren eta ondoko errepresio frankistaren ondorioz herritarren kontra erabilitako errepresioarekin eta bortxakeriarekin lotutakoak. Hartara, halakotzat deklaratzeko ahalakoa dira honakoak:

a) 1936ko kolpe militarren ondotik eta haren ondorioz desagerrarazitakoak eta fusilatutakoak ehortzi zituzten hobiak edo ehorzketa-lekuak, kolektiboak nahiz banakoak.

b) Indarkeria eta errepresio frankista jasan zutenak atxilotzeko eta hiltzeko tokiak.

c) Frankismoan preso egon zirenen bortxazko lanak baliatuz eraikitako herri-lanak.

2. Era berean, Nafarroako memoria historikoaren tokiak da halakotzat deklaratu eta inskribaturik edozein toki, gertaera haiekin lotura zuzen eta historikorik izan gabe ere, biktimen familiek, memoriaren aldeko elkarteek, erakundeek eta administrazio publikoek gerora sortutakoa errepresio haren biktimentzako oroimen, aitortza eta erreparazio gisa”.

Aurrekoa aintzat hartuta, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa sortu du, eta orain arte 14 toki inskribatu ditu bertan. Aipatu foru legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera seinalezatu dira memoriaren tokiak.

Foru lege hori Parlamentuaren 2018ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onetsi zen, UPN, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai, PSN eta I-Eren aldeko botoekin eta PPNren abstentzioarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Herritarrekiko harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Urnizako Jaurerriari (Erroibar) buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Urnizako Jaurerriari (Erroibar) buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21-PES-00077) Urnizako Jaurerriari buruz (Erroibar). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Urnizako finkak, Larraingoa, Gurbizar, Oiade eta Orosako finkekin batera, "Erroibarko Ondareko Finkak" deitutako multzoa osatzen du, guztira 1.068 hektareakoa. Gaur egun, finketako larreen kudeaketa Erroibarko Udalarri lagata dago hitzarmen bidez. Laster lagatzekoa da ehiza larriaren aprobetxamendua.

Era berean, finketako Baso Antolamenduaren Proiektua egiten ari da.

Urnizako finkako baso etxearen "okupazioari" dagokionez, hauek dira hura utzarazteko egindako jarduketak nagusiak:

La Lera kultur elkarteak Nafarroako Oihan Ondareko Urnizako etxearen lagapena eskatu

zuen 2015eko abuztuaren 17an, kultur proiektu bat garatzeko. Etxe hori Erroko 3. poligonoko 14. lurzatian dago.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ikusi zuen higiezia okupatuta zegoela, eta egiaztatu zen Erroibarko Udalak F.B.ri eta I.S.ri higiezin horretan emana ziela alta udal erroldan. Hortaz, beren okupazio egoera arauz kanpokoa zela jakinarazi, eta ondasuna uzteko eskatu zitzaion.

Errekerimendu hori bete ez zutenez, 96/2016 Ebazpena eta hura aldatu zuen 2017ko martxoaren 31ko 161/2017 Ebazpena zirela medio — biak ere Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiarenak— utzarazpen espediente administratiboa abiarazi zen, Nafarroako Oihan Ondareko jabari publikoko ondasunak okupatu zirelako Urnizako baso etxean, Erroko 3. poligonoko 14. lurzatian (posta-helbidea: Errosarioko Andre Maria kalea, 3), eta 15 eguneko epea ezarri zen ondasuna berreskuratzeke.

2017ko apirilaren 19an, F.B.k alegazioak aurkeztu zituen, esanez ondasuna okupatu zenetik igarotako epeak hura administrazio bidetik berreskuratzea eragozten zuela.

Hurrengo egunetan biltzekoak dira Erroibarko Udala eta Nafarroako Gobernuako departamentuak, egoera honi behin betiko konponbidea bilatzeko.

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, udalen eta Nasuvinsaren arteko lankidetzaren bidez garatuko diren hirigintza-jarduketegi buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udalen eta Nasuvinsaren arteko lankidetzaren bidez garatuko diren hirigintza-jarduketegi buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00078 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzuteko. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Lankidetzaren bidez udal entitateekin sinatu diren edo negoziatzen ari diren hitzarmenei dagokienez, datu hauek ditugu:

- Lekunberriko Udalarekin hitzarmena sinatu da lankidetzaren bidez industrialde bat garatzeko.

- Lizarrako Udalak hitzarmen bat onetsi du industrialde bat garatzeko lankidetzaren bidez. Oraindik sinatu gabe dago.

- Nasuvinsak lankidetzaren bidez industrialdeak garatzeko proposamenak egin dizkie San Adriango, Tafallako eta Altsasuko udalei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-

21/PES-00081), informazioa nahi baitu Elikadura-jokabidearen Nahasteen Helduentzako Programari buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

1. *Osasun Mentalaren Planak eta osasun mentaleko oroitidazkiek emandako datuak ikusirik, ba al da arrazoirik, esplikatzen duenik Elikadura-jokabidearen Nahasteen Helduentzako Programaren jarduerak 2015etik 2019ra bitartean izandako jaitziera nabarmen eta etengabea (kontsultetan, paziente kopuruan eta ospitalerazteetan)?*

Elikadura-jokabidearen Nahasteen (EJN) Unitatea 2009ko urtarrilean hasi zen jardunean, elikadura-jokabidearen nahasteak tratatzeko baliabide monografiko gisa. Bi programa zituela abiatu zen:

eguneko ospitaleratzea, eta maiztasun handiko kontsulta.

2011ko urtarrilean jarri zen martxan hirugarren programa, talde-formatuan, sei hilabeteko irauperekin. Azken urte hauetan aldaketak izan dira programa horietako esku-hartzeen prozeduretan, etengabeko ebaluazio prozesuan lortuz joan diren datuen arabera.

2015ean, Irubide Eguneko Ospitalea hobetzeko proiektua garatzearen ondorioz, batu egin ziren Irubide Eguneko Ospitalea eta Elikadura-jokabidearen Nahasteen Unitatea. Esku hartzeko bi modalitate daude EJNren laguntza programaren barnean: taldekoa eta tratamendu intentsibokoa; eta azken horrek, berriz, maiztasun handiko kontsultak eta ospitaleratze partzialeko programa biltzen ditu. 2018an eten egin zen taldeko programa, langilerian aldaketak egin zirenean.

Ditugun erregistro-datueta antzeman daitekeenez, programa intentsibo ambulatorioan asistentzia hazi egin zen 2012. urtera arte, eta ondoren pixkanaka behera egin dute bai kontsulten kopuruak bai artatutako pazienteen kopuruak. Ikus dezakegu nola, egindako birformulazioak gorabehera, beheranzko joerari eutsi zaion hala kontsulten kopuruan nola artatutako pazienteen kopuruan.

Osasun mentaleko zentroetan, aldiz, elikadura-jokabidearen nahasteen ondoriozko laguntza eskaria egonkorra izan da azken urte hauetan zehar. Prebalentzia 300 paziente ingurukoa izan da, guztira. Egiaztatu da, halaber, akutuen unitateetan sartutako kopurua handitu egin dela.

Ez daukagu ez daturik ez informazio zehatzik hori zergatik gertatu den azaltzeko. Azalpenaren faktore asko hartu behar dira kontuan, gure ustez. Objektiboki esan dezakegu deribazio irizpideak murriztaileagoak direla eta osasun mentaleko zentroek paziente gutxiago bideratzen dituztela eguneko ospitaleetara. Uste dugu egoeraren ebaluazio sakona egin behar dela gertatu dena ulertzeko eta hobekuntzak garatzeko.

2. Zein da Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programan 2020an artatutako pertsonen bilakera, bai paziente kopuruari bai kontsultei eta ospitaleratzei dagokienez?

2020an, bi programetan beheranzko joerari eutsi diote bai kontsulten kopuruak bai artatutako pazienteen kopuruak. Ospitaleratze partzialeko programa zertxobait hazi da abuztuan, irailean eta urrian, baina hazkunde horrek ez du iraun.

3. Pandemia hasi zenetik, zenbat paziente berri bideratu dira programa horretara? Pande-

mian zehar izan al du igoera nabarmenik elikadura-jokabidearen nahastea duten pazienteen kopuruak?

2020ko martxotik 11 paziente bideratu dira eguneko ospitalearen programara. Pandemian zehar ez da handitu artatutako pazienteen kopurua. Konfinamenduak iraun zuen hilabeteetan behera egin zuen artatutako pazienteen kopuruak, eta gero gora egin du harik eta konfinamendu aurreko datuen pare jarri arte.

4. Zein izan da pandemian jarraitu den arreta protokoloa, bai paziente berrientzat bai programan lehendik zeudenen jarraipenerako?

Martxoaren 13an hasi ziren alarma egoera eta konfinamendua. Orditik aurrera, ezarritako prebentzio neurrien eta higienarako baliabideen arabera antolatu zen asistentzia. Ospitaleratze partzialeko kontsultak bertan behera utzi ziren, eta maiztasun handikoak mantendu. Kontsultak telefonoz eta bideokonferentziaz egin ziren. Aurrez aurreko kontsultak ere egin ziren, erabiltzaileek hala behar izan zutenean. Jantokiko zerbitzua bertan behera utzi zen. Abuztutik aurrera berriz ekin zitzaion ospitaleratze partzialeko programako asistentziari. Berriz hasi da jantokiko zerbitzua.

5. Zer maiztasunez egin dira bakarkako eta familiakako kontsultak? Presentzialak ala telefono bidezkoak izan dira? Departamentuaren ustez, behar adina baliabide jarri al dira paziente horiek behar bezala artatzeko?

Banakako eta familiakako kontsultei eutsi zaie. Ez dugu maiztasunari buruzko datu objektiborik, ezta familiekiko kontsulten daturik ere. Egoera kontuan izanda, uste dugu baietz, behar adina baliabide jarri direla eguneko ospitalean artatzen ari ziren erabiltzaileen beharrei egoki erantzuteko.

6. Talde-programa mantendu al da? Bestelako mekanismorik ezarri al da?

Talde-programa 2018an eten egin zen langilerien aldaketen ondorioz.

7. Gaur egun indarrean den Osasun Mentaleko 2019-2023 aldirako Planaren 18. helburua da legegintzaldi honetan berrantolatzea elikadura-jokabidearen nahastea duten pertsonen arreta, eta bi jarduera ildo zehazten dira, 2021eko lehen seihilekotik aurrera betetzekoak. Zer aurrerapauso eman dira jarduera ildo horietan, zehazki eguneko ospitaleko Helduentzako Elikadura-jokabidearen Nahasteen Programa ambulatorioa-II osasun mentaleko zentroetan integratzeari dagokionez?

Gaur egun, Iruñean dauden eguneko bi ospitale orokorren plan funtzionala berrikusten ari da

eskaintza terapeutikoa berregituratzeko eta erabiltzaileen beharretarako eskaintza eraginkorragoa egin ahal izateko. Hor sartutako zeharkako programetako bat litzateke elikadura-jokabidearen nahasteen arreta, bere prozedura bereziekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

Galdera, enplegu inklusiboko programei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu inklusiboko programei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak galdera egin du enplegu inklusiboko proiektuei buruz (10-21/PES-00082). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Enplegu inklusiboko programen diseinuan lan egiten ari gara gaur egun. Aurrerapen gisa jakina-

razten dut programa horiek barnean hartuko dituztela orientazio ekintzak, prestakuntzakoak, eta parte-hartzaileak laneratu daitezzen lortzeko ekintzak, eta beren enplegagarritasun baldintzak hobetzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak izanen direla hartzaileak. Iraupen laburreko programak izanen dira (hasiera batean 4 hilabetekoak). Izan ere, epe laburrean lortu nahi da kolektibo jakin batzuetako pertsonak laneratzea, banakako ekintza pertsonalizatuen bitartez. Programa horietarako 600.000 euro jarriko dira, eta ustez 250 bat pertsonak parte hartuko dute. Deialdia maiatzean edo ekainean onestekoa da, eta programak 2021ean eta 2022an garatuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

